



Sopelako Udala
Ayuntamiento
de Sopela

HITZARMENA

SOPELAKO UDALA

ETA

SOPELANAKO MUNARRI ATLETISMO KIROI TALDEAREN ARTEKOA

SOPELANAKO MUNARRI ATLETISMO KIROI TALDEA

CIF: G95215331

ZER FINANTZATZEKO:

-2025. URTEKO HERRI LASTERKETA

-KLUBAREN PARTE-HARTZEA TXAPELKETETAN





SOPELAKO UDALAREN ETA SOPELANAKO MUNARRI ATLETISMO KIROL TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDUTAKOAK

Alde batetik, GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI andrea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua.

eta bestetik, FRANCISCO JAVIER CORRALES DÍAZ jauna, SOPELAKO MUNARRI ATLETISMO TALDEAREN buru moduan, helbidea Sopelan, NAN 30625237-R zenbakiduna.

ESKU-HARTZAILEAK

GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI andrea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua, Udalaren izenean eta legezko ordezkari jarduten duena, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat.

FRANCISCO JAVIER CORRALES DÍAZ jauna, SOPELAKO MUNARRI ATLETISMO TALDEAREN Presidentea (aurrerantzean, "MUNARRI A.T."), G95215331 IFZ zenbakiduna, elkartearen izenean eta ordezkari jarduten duena. Elkarrekin Sopelan helbidea du eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Saileko Elkarrekin Erregistroan inskribatuta dago, inskripzio data 2002ko ekainaren 5, CD0003050 Erregistro zenbakiarekin.

Esku-hartzaileek elkarri legezko ahalmena aitortzen diote HITZARMEN hau egiteko, eta elkar hartuta ondoko hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Alderdi biek, hitzarmen honen bidez, Sopelako udalerrian kirola sustatu nahi dutela, atletismo modalitatean.

BIGARRENA.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera, toki-erakundearen aurrekontu orokorretan izen eta guzti aurreikusten diren diru-laguntzak zuzen-zuzenean eman ahal izango dira, eta hitzarmenak izango dira izendun diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

HIRUGARRENA.- Sopelako Udalaren 2025eko aurrekontuan 9.000,00 euroko izendun diru-laguntza jasota dago MUNARRI A.T.-ren alde.

Horregatik guztiagatik, formalizatu egiten da hitzarmen hau, ondoko hitzarkinak dituen.

HITZARKINAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA





Hitzarmen honen helburua da Sopelako Udalak MUNARRI A.T. elkartearen aldeko diru-laguntza emateko baldintzak arautzea, diru-laguntza horren bidez laguntza eman nahi baita elkartearen ohiko jardueratik datozen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- PROGRAMA.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2025erako jardueren memoriak zenbait kirol-proba egitea programatu dela azaltzen du eta, klubaren gastuak kontuan hartuz, 11.714,00 euroko aurrekontua aurkeztu du.

11.714,00 euroko aurrekontua onartu da, txosten teknikoan adierazitako arrazoiengatik, eta honako taula honetan deskribatutako ehunekoetan ematen da dirulaguntza; beraz, dirulaguntzaren zenbatekoa 9.000,00 eurokoa izango da, eta programa hori justifikatu egin beharko da, hitzarmen honen zazpigarren klausularen arabera.

	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Proposatutako dirulaguntza portzentaia	Proposatutako dirulaguntzaren kopurua
Herri lasterketa	6.000,00 €	6.000,00 €	95,000%	5.700,00 €
Asegurua	314,00 €	314,00 €	60,000%	188,40 €
Federazio gastuak	3.000,00 €	3.000,00 €	60,000%	1.800,00 €
Kirol materiala	2.400,00 €	2.400,00 €	54,650%	1.311,60 €
GUZTIRA	11.714,00 €	11.714,00 €	----	9.000,00 €

HIRUGARRENA.- FINANTZAZIOA

Diru-laguntzaren zenbatekoa 9.000,00 eurokoa da.

Hitzarmen honetan lagundutako edozein ekintzarentzat jasotako edozein laguntza edo beste diru-laguntza bat jasoko balu, idatziz jakinarazi beharko dio egoera hau elkarteak Sopelako Udalari. Diru-laguntza hau bateragarria izango da erakundeak estatuko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso ditzakeen beste batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzeko ez badute eta gainfinantzaketarik eragiten ez badute.

Ordainketari dagokionez, Hitzarmena sinatu ostean, diru-laguntza guztia ordainduko zaio elkarteari, zeren eta Sopelako Udalak emandako diru-laguntza hau beharrezkoa da elkartearen ekintza hauek burutu ahal izateko. Guzti hau, diru-laguntzen Udal araudiak bere 18. artikulua bigarren paragrafoarekin jasotakoarekin adostasunean.

LAUGARRENA.- MUGAK

Bigarren hitzarkineko partida bakoitzari dagozkion diru laguntzen zenbatekoak diruzko gehieneko mugak dira. Hala ere, gerora sortutako beharrak direla eta entitateak uste badu hitzarmen honetan aurreikusitako helburuak hobetu daitezkeela zenbateko horiek aldatuz, ehuneko 20raino gehitu litezke **onartutako aurrekontuaren zutabearen** agertzen diren zenbatekoak —ehunekoa aplikatuta, diru laguntza ere neurri berean handituko litzateke—, **betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin**, ezin baita gainditu jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa.





Aldaketa onartu ahal izateko, entitateak honela jokatu beharko du:

-Diruz lagundutako partiden batean onartutako aurrekontuaren %0,1 eta %10 bitarteko goranzko aldaketak diruz lagundutako entitateak berak erabaki litzake, berak bakarrik, betiere aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badira.

-%10etik gorako aldaketetarako, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen baimena beharko da, betiere instrukzio organoak aldeko txostena eman ondoren.

Elkarteak idatziz jakinarazi beharko dio Sopelako Udalari ea beste edozein diru laguntzarik edo laguntzarik jaso duen hitzarmen honen xede den jarduera finantzatzeko.

BOSTGARRENA.- BETEBEHARRAK ETA PRINTZPIOAK

- a) Sopelako Udalari jakinarazi beharko dio elkarteak hitzarmen honen bidez finantziatutako edozein ekintzarako beste diru-laguntza bat edo beste mota bateko laguntza ekonomiko bat jaso izan balu.
- b) Elkarteak **euskara** erabili beharko du bere komunikazio guztietan eta dokumentu publikoetan. Argitara ematen dituzten publizitate-elementu guztiek EAEko hizkuntza ofizial bietan idatzita egon beharko dute; eta antolatzen dituzten jardueretan, bermatu egingo da hizkuntza biak bertan egotea. Halaber, esatari bat kontratatzen baldin bada diru-laguntzarekin ordaindutako kirol pobretan jarduteko, lan hauetan –gutxienez neurririk handienez- erabilitako hizkuntza, euskara izan beharko da.
- c) Era berean, Sopelako Udalaren babesa agertu beharko da argitaratutako publizitate-elementu guztietan, nabarmen eta lehentasunezko toki batean, erakundearen logotipoa edo armarriarekin batera.
- d) Elkarteak genero-berdintasunaren aldeko ekintzak sustatu eta garatu beharko ditu, bai eta nolana hiko bereizkeria saihestu ere.
- e) Elkarteak eta bere kideek Udalaren irudia errespetatu eta sustatu beharko dute.
- f) Elkartearen betebeharra izango da erabilitako instalazioak zaintzea eta instalazioen mantenimenduan laguntzea, bai eta instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileak errespetatzea ere.
- g) Jarduerak eraginkortasunez garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.
- h) Elkarteak, bere kudeaketan eta hitzarmenaren izenpetzaileekiko harremanetan, gardentasun-irizpideak erabiliko ditu. Era berean, Udalak eskatutako informazio guztia aurkeztu beharko du.
- i) Elkarteak lortutako finantza bidearen eta dituen baliabideen neurriko jarduera egin beharko du.





- j) Elkartearen gain egongo dira elkartean diharduten langileen lan eta zerga-arloko beharkizunak. Horretarako, Sopelako Udalak, aurrekoa betetzen dela egiaztatzeko, behar den informazioa eskatu ahal izango dio elkarteari.
- k) Diruz lagundutako elkarteak **erantzukizun zibileko aseguruak kontratatatu beharko du** jarduerak eragin litzakeen erantzukizunak estaltzeko.
- l) Bere kirol jardueretan printzipio hauek errespetatu beti: parte-hartzea, joko garbia eta aurkariari errespetua.
- m) Bere kirol jarduera guztiak hezkuntza formazioaren eta osasun garapenaren printzipioekin bat egin.
- n) Antolatutako jardueretan parte hartzen duten adingabekoak babestu eta bere eskubideak errespetatu, 2/2023 Legeak, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena, ezarritakoarekin adostasunean.
- o) Partaideei, boluntarioei eta saridunei oparitutako kamiseta eta produktu guztietan, Sopelako Udalaren izena eta logotipoa edo armaria agertu beharko dira nabarmen eta lehentasunezko toki batean, eta beste babesle guztien gainetik. Betebehar hau, klubak bere kideen artean banatzeko erositako katean, entrenamenduetan eta txapelketetan erabiltzeko arropan eta ekipamenduak errespetatu beharko da baita ere.

SEIGARRENA. -JARDUNEN JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, dagokion batzordea eratuko da, honela osatuta: Alkatea, edo berak eskuordetzen duen pertsona, eta elkarteak izendatzen duen ordezkari bat. Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueraren gauzatze normalaren jarraipena egitea. Irizpideak eta moduak zehaztuko ditu informazioa partekatzeko eta bakoitzaren konpromisoak egoki betetzeko.
- b) Kasu bakoitzean behar diren tramiteak arin egiteari traba jartzen dioten oztopoak kentzen laguntzea.
- c) Hitzarmen honen ondoriozko jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurriei buruzko txostena egin eta neurriok proposatzea.
- d) Onetsi edo errefusatu, bere kasuan, elkarteak egindako ehuneko 10etik ehuneko 20raino onartutako aurrekontuan jasotako jardueren laguntza handitzea, betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin, beti ere jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa gainditzen ez bada, eta neurri honekin hitzarmenak lortu nahi dituen helburuak lortzeko hobe dela uste bada.
- e) Hitzarmena interpretatu eta egikaritzeko sor litezkeen arazoak ebaztea.





Jarraipen Batzordearen funtzionamendu-prozedura, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. Kapitulua 3. Atalaren 1. Azpiatalean azaltzen da, bertan jasota baitago kide anitzeko organoen araubidea.

ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Elkarteak, diruz lagundutako jarduera amaitu eta beranduenik, 2026ko otsailaren 28an, justifikazio-kontu erraztua aurkeztu beharko du Udal Erregistro Orokorrean, 887/2006 EDaren 72. artikulua araberak; artikulua horretan arautzen da nola justifikatu behar diren diru-laguntzak.

Kontuak ondoko dokumentazio hau eduki beharko du:

- a) Memoria: egindako jardueraren memoria xehatua. Memoria honetan Udal diru-laguntzarekin ordaindutako **ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da**. Hauetako epigrafe bakoitzaren barruan burututako ekintza bakoitza ondo deskribatuko da, eta aurreko urteen aldean aipagarriak diren edo beritasunen bat dakarten aspektu guztiak agertuko dira. Baita ere, elkarteak ekintza hobetzeko proposatzen dituen azalpenak, edo nahi duen beste edozein gauza agertu daiteke epigrafe bakoitzean.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea:
 - a. Diru-sarrerak: diru-sarreraren zerrenden barruan edozein kontzeptutan lortutakoak sartuko dira: bazkideen kuotak, izen-emateak, diru-laguntzak (publiko zein pribatuak), jasotako beste edozein laguntza ekonomiko, material salmenta (pegatinak, pinak eta abar), zozketak, eta abar.
 - b. Gastuak: jardueraren ondorioz edukitako gastuen erlazioa (memoriarekin bat datorrena). Ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da.
- c) Ordaindutako gastuen **jatorrizko** frogagiriak, **programaren zenbateko osora heldu arte**. Frogagiriok fakturak edo froga balioa duten bestelako dokumentuak izango dira, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak izan eta baliokideak badira. **Frogagiriak diru-laguntzarekin ordaindutako partiden arabera egongo dira sailkatuta.**
- d) 100,00 euro baino gehiagoko gorako ordainketak, banketxearen idazpenarekin bitartez justifikatu beharko dira.
- e) Diruz lagundutako jarduera dela-eta argitaratu diren foileto, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta horrelakoen ale bana aurkeztu beharko dira. Halaber, diru-laguntzarekin ordaindutako arropa, ekipamendu edo/eta produktuetan erakundearen izena eta armarrria agertzen direla ikusi ahal izateko, ale bat edo argazki bat.
- f) Hirugarrenei egindako kalteen (pertsonak edo gauzak) babesean, egindako erantzukizun zibileko polizaren kopia, eta dagokion ordainagiriaren kopia.

ZORTZIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA





Udalaren kuxara itzuli egin beharko da jasotako diru laguntza, bai eta ordaintzen denetik itzultzea erabaki arte sortutako berandutze korrituak ere, Sopelako Udalaren diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen araubide orokorraren 19. artikuluan jasotako edozein kasuan (2016ko abenduaren 23ko 243 zenbakia).

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta administrazioko antolamendu juridiko ezargarriaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Aurreko Seigarren hitzarkinak bere e) letran ezarritakoarekin bat, Jarraipen Batzordeari dagokio hitzarmen honek edo bere garapenak ekar litzakeen interpretazio-arazoak ebaztea. Hori horrela ere ezin bada ebatzi, araubidetzat joko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan xedatutakoa.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

Hitzarmena izenpetzeak ez du berarekin ekarriko esku-hartzaileen eskumenei uko egitea edo eskumenok aldatzea. Izan ere, esku-hartzaileek hitzarmenaren araberrako konpromisoen erantzukizunak baino ez dituzte beren gain hartuko.

Hitzarmena izenpetzen denetik sortuko ditu ondorioak, eta une horretatik bertatik esku-hartzaileak behartuta daude hor adostutakoa betetzera. Eta hitzarmenak iraungo du harik eta bertan jasotako beharkizunak kitatu arte, edo, bestela, 2025eko abenduaren 31ra arte.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA

Aurreko hitzarkinean aipatutako indarraldia amaitzen denean edo hitzarmena suntsiarazten denean, azkendu egingo da hitzarmena. Esku-hartzaileetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste esku-hartzaileak ahalmena izango du hitzarmena zorrozki bete dadin galdatzeko edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, bertaratuak elektronikoki izenpetu egiten dute dokumentu hau.

ALKATE-UDALBURUA

Guruzne Carrasson Torrontegui

SOPELANAKO MUNARRI
ATLETISMO KIROL TALDEA

Francisco Javier Corrales Díaz

